

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### **CRISTINA ENEAK SALATU DU MANDAS-DUKEAREN KOADROA ETA HAINBAT LIBURU LAPURTU ZITUZTELA KONFINAMENDUAN**

Ekologia zinegotziak eta Cristina Enea Fundazioaren arduradunak, Enrique Ramos sozialistak, parkeko Ingurumen Baliabideen Zentroari egindako eraso salatatu du, lapurtutako koadro bat, kaltetutako beste bat eta Mandasko Dukearen liburutegi pertsonaleko hainbat liburu lapurtzea egotzita.

Ramosen arabera, "gertakariak apirilaren 4ko gauean izan ziren, konfinamendu goreneko aldian. Antza denez, ezezagun batzuk parkera sartu ziren eta jauregi zaharreko ate bateko sarraila bortxatu ondoren, bertara sartu eta hainbat objektu lapurtu zituzten. Udaltzaingoa bertaratu zenean, gaizkileak joanak ziren. Agenteek hatz-markak eta DNA laginak jaso zituzten, egileak aurkitzeko eta lapurtutako objektuak berreskuratzen saiatzeko".

Ingurumen Baliabideen Zentroan eragindako kalteez gain, Leon de Malemprék 1905ean margotutako "Mandasko Dukearen erretratua" desagertu egin dela egiaztatu da. Bere emazte Cristina Brunettiren margolana ere, "Mandasko Dukeren erretratua", 1879an Vicente Palmarolik eta Gonzalezek margotua, kaltetua izan zen eta jada espezialistei bidalia izan da zaharberritze lanak egiteko.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

Mandasko Dukearen legatutik, zehazki bere liburutegitik, honako liburu hauek ostu zituzten:

- **Almanach de Gotha : Annuaire genealogique, diplomatique et statistique, 1894 : cent trente et unième année.** Justus Perthes, 1894.
- **España. Cortes Generales. Senado.** Imprenta de la Provincia, 1864
- **Fuero viejo de Vizcaya.** Imprenta y Librería de José de Astuy, 1909
- **Memoria justificativa de lo que tiene espuesto y pedido la ciudad de San Sebastián para el fomento de la industria y el comercio de Guipúzcoa.** imprenta de Ignacio Ramón Baroja, 1832
- **The new constitutional laws for Cuba : text of the recent measures for the self-government of the Island, with comments thereon Associated.** Spanish and Cuban Press, 1897
- **Broglie, Achille Léonce Victor Charles, Duc de (1785-1870).** Calmann Lévy, editeur, 1888
- **Vicisitudes de la monarquía constitucional en Francia.** Fermin Lasala y Collado, 1878
- **Memoria referente al tema 41 de la 4ª sección del programa publicado por la excma. diputación de Guipúzcoa.** Eliodoro Ramírez Olano, 1904
- **Discurso presentado á la Real Academia de Ciencias Morales y Políticas.** Fernando Vida, 1890
- **Exposición y critica del llamado intervencionismo del Estado.** Hilario Yaben Yaben, 1914
- **Les plantes a feuillage ornemental.** Édouard François André, 1911

Ramosek adierazi duenez, "Kalte materialetatik haratago, Donostiako ondarearen aurkako eraso da, eta, zehazki, Fermin Lasala Mandasko dukearen legatuaren aurkako eraso.

